Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan

(Ideology in the songs of the Floral Games)

Haritschelhar, Jean*
Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15.
48005 Bilbo

* Euskaltzainburua
Eusko Ikaskuntza

Aztertzen ditugularik 1853tik haste eta 1897 arte, erran nahi baita Antonio Abbadia bizi zelarik eta olerkariek hauta zetzazketelarik nahi zituzten gaiak, ikus daiteke ororki zer daukaten gogo-bihotzetan eta zer nahi duten erran. Euskaldun fededun lema pean jarri dut lehen biziko gaia. Giristinotasunak premia haundia du Euskal Herrian eta olerki askotan Jainkoaren gana, Andre dena Mariaren edo Kristoren gerizapean jartzen dira kantu egileak. Erromantiko garaia dirau oraindik Euskal Herrian aipatuz etsipena, eritasuna, heriotza, umezurtz izatea, baina ere amodioa zorigaitzez edo zorionez betea. Baserritar giroa goraipatzen da: etxea, etxaldea, etxekanderea, laborari langilea, herria bere biztanleekin (ofizialeak eta abar) herriko bestak (soinu, dantza, pilota, bertsulariak), herriko-mina herritik urruntzearekin. Politika ere agertzen da olerkietan: Inperioa eta orduko gerlak, 1870 arte, errepublikaren aurka gero eskuindar moduan (1870-1879) eta Hegoaldera pasatzen direlarik Lore jokoak, erabiltzen diren gaiak dira Historia, euskaldunen laudorioak, euskara bera, hizkuntzaren kontzientzia eta azkenik "laurak bat"-en ondotik 90-eko hamarkadan "Zazpiak bat" lemaren aldarrikatzea.

Giltz-Hitzak: Fededuna. Erromantizismoa. Baserri(tar)a. Politika. Euskara. Zazpiak bat.

Lorsque nous analysons de 1853 à 1897 c'est-à-dire pendant la vie d'Antoine d'Abbadie les diverses idéologies contenues dans les poèmes lorsque le sujet était libre quatre thèmes apparaissent. Euskaldun fededun, le Basque est croyant et cela transparaît dans beaucoup de poèmes par une prière à Dieu, au Christ ou à la Vierge. La période romantique continue au Pays Basque avec comme thèmes le désespoir, la maladie, la mort, la condition de l'orphelin, l'amour heureux ou malheureux. La campagne est particulièrement louangée: la maison, le domaine, la maîtresse de maison, le travail, le village avec ses habitants (artisans et autres) les fêtes (musique, danse, pelote, bertsularis) le mal du pays lorsqu'on en est éloigné. La politique y fait son entrée: louanges à l'Empereur et sa famille, évocation des guerres (1853-1870), l'anti-républicanisme (1870-1879) et lorsque les Jeux floraux passent au Sud des thèmes nouveaux apparaissent: Histoire du Pays Basque, louanges adressées aux Basques, la langue basque, la conscience de la langue, et finalement après le "Laurak bat" l'exaltation du "Zazpiak bat" dans la décennie 1890.

Mots Clés: Fededun. Romantisme. Ruralité. Politique. Euskara. Zazpiak bat.

Al analizar las composiciones correspondientes al período que va de 1853 a 1897, es decir del tiempo en que Antoine d'Abbadie vivía y los poetas podían elegir sus temas, puede observarse, en general, qué tenían en mente y corazón y qué es lo que pretendían expresar. El primer tema lo he expuesto bajo el lema Euskaldun fededun. El cristianismo tiene gran predicamento en el País Vasco y en muchas de las poesías sus autores recurren a la advocación de Dios Padre, la Virgen María o Jesucristo. Pervive aun la época romántica en el País Vasco y se mencionan la desesperación, la enfermedad, la muerte, la orfandad, pero también el amor, sea éste dichoso o desgraciado. Se exalta el ambiente rural: el caserío, la propiedad, la dueña de la casa, el trabajador del campo, el pueblo con sus habitantes (profesionales y demás), las fiestas del pueblo (música, baile, pelota, versolaris), la nostalgia por la lejanía del solar natal. También la poliítica aparece en estas composiciones: el Imperio y sus guerras hasta 1870, postura antirrepublicana de derecha después (1870-1879) y cuando pasan al País Vasco peninsular los temas que se utilizan son la Historia, enaltecimiento de los vascos, el propio euskara, la conciencia de la lengua y, por último, tras el "Laurak bat" la proclamación del lema "Zazpiak bat" en el decenio de los 90.

Palabras Clave: Creyente. Romanticismo. Caserío. Política. Euskara. Zazpiak bat.

Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. (Hendaye, 1997). - Donostia : Eusko Ikaskuntza ; Bilbao : Euskaltzaindia, 1998. - P. 621-653. - ISBN: 84-89516-71-5

Etiopiako piaiak bukaturik Euskal Herriratu ziren Abbadia bi anaiak, Urruñan Antoine, Ziburun Arnauld eta Baigorriko Etxauzean kokatu zen Charles anaia gazteena. Hasi zen Anton pilotaren laguntzen 1851-an estrenatu zelarik Urruñako plaza laxoa emanez:

– 400 libera erraboteko partidaren irabazleei
– 100 libera pilotari hoberenari irabazle edo galtzale
– 100 libera plekari hoberenari

Orduan sortu zituen Eskualdun bestak.

Pilota partida ederra egin zuten zortzi pilotariek eta partida horrek sor-arazi zuen hamalau bertsutako kantu bat hamabigarrenak hauxe zerasala:

Guzien buruzagi d'Abbadie jauna,
Jainkoak ekharri zaitu gure artera huna,
Zu zare laudorioak merexi tutzuna,
Zeren egin daukuzun obra eder bat ona,
Desiratzen dauzugu milaka fortuna,
Bertze mundian ere zeruko erresuma.

Nahi ala ez, holako bertsu batek poztu zukeen Anton Abbadia.

Bertze urtean, 1852-an, berdin saristatu zituen pilota partidak, bai errabotekoa, bai plekakoa eta orduan agertu ziren lau kantu, biga Napoleon eta Louis Napoleon-en alde eta bertze biga Anton Abbadia-ren ohoretan, bat Tipi Urruñarrak egina, bertzea egile ixilekoa. Pentsa daiteke zerbait eskaini ziela Anton Abbadia-k kantu egileei eta, beharbada, ikusiz nola sortzen zen kantua, asmatu zukeela euskal kantuaren lehiaketa baten apailatzea, hori eginen baitu 1853-an, bilduz haren inguruan orduko jakintsun batzu, apezak gehienak.

Deia agertu zen Baionako eta Paueko kasetetan. Hona zer dion:

«Quelques amis du Pays Basque nous prient d'annoncer qu'ils donneront le 5 septembre prochain sur la place d'Urrugne et avant la partie de balle une once d'or et un *makila* ou bâton basque à l'auteur de la meilleure chanson exprimant les regrets d'un Basque en partance pour Montevideo.

La chanson ne devra pas avoir plus de cinquante vers, être en strophes et être adaptée à un air basque connu que l'auteur indiquera.

M. M. l'abbé Dassance, chanoine, l'abbé Harriet directeur du Grand Séminaire, l'abbé Lissardy, doyen de Hasparren, l'abbé Goyetche d'Urrugne, Ducos, propriétaire à Saint-Jean-de-Luz, Léremboure, avocat à Bayonne, d'Abbadie, membre correspondant de l'Institut, ont bien voulu accepter les fonctions de juges de ce concours national dans la plus belle et la plus parfaite des langues.

M. M. les chansonniers basques sont priés de faire remettre leurs compositions avant le jour de l'Assomption et franc de port à M. l'abbé Harriet au Grand Séminaire de Bayonne.

Si parmi les pièces envoyées à ce concours, il s'en trouvait écrites dans les dialectes de Soule, de Navarre, du Guipuzcoa ou de la Biscaye, M. M. les juges s'en adjoindraient d'autres choisis parmi les indigènes de ces provinces. Les noms de ces juges seraient alors publiés en même temps que la chanson qui aurait mérité le *makila.*

Nous invitons les Basques d'au-delà des monts à contribuer à ce concours national. Unis par le cœur, par les habitudes et par la tradition, les peuples qui habitent les

deux versants des Pyrénées doivent être animés d'une noble émulation pour chanter les douceurs, vanter les charmes du Pays qu'ils aiment plus que tout».

(*Mémorial des Pyrénées,* Pau 11 juin 1853)

Hau da Lore jokoen sortze-agiria. Euskal kantuaren ohidurak errespetatzen ditu (bertsu berriak aire zaharrean) bainan mugatzen du kantua 50 neurtitzetan, erran nahi baita lau punduko dotzena bat bertsu, bortz punduko hamar bertsu eta bederatzi punduko sei bertsu.

Argi eta garbi dago Lore jokoak osoki idekiak direla. Zazpi probintzietako bertsulari eta kantu egileek parte har dezakete, espresuki hegoaldekoak deituak direlarik. Ez dakit hegoaldeko kasetek hedatu zuten deia, bainan hegoaldeko gutik parte hartu zuten lehenbiziko hogei urteetan.

Bizi zelarik 1853-tik 1896-arte, azken urte hau barne, eta salbu 1861-an eta 1870-an –bi urte horietan ez baitzen Lore jokorik izan– berrogeita bi urtez beraz, hor izan ala ez izan, Anton Abbadia-k eskaini ditu sariak sustatuz pilota, kantua, bertsularitza, dantza, irrintzina, lasterkadak eta bertze joko batzu, ahantzi gabe laborantza eta hazkuntza.

Lore jokoetako kantuen esku-iskribuak Pariseko Biblioteka nazionalean daude eta kongresurako Patri Urkizu-k argitaratu ditu, euskaldunei eta euskaltzaleei eskainiz XIX. mendeko bigarren parteak euskal literaturari egin dion ekarpena. Azter daiteke orai zer ideologia mota dakarten kantu horiek, zer gai mota derabilaten. Hauxe da, hain zuzen, ikertu nahi dudana.

Derragun berehala epaileek hautatzen dutelarik gaia –hiru aldiz gertatua 1853-tik 1856-arte lehenik, 1879-tik 1881 arte gero, 1894-tik 1896 arte azkenik– neurt daitekela epai-mahaikoen ideologia; aldiz gaia librea delarik azter daitekela kantu egile bakoitzarena eta, orduan, zein zen orduko giroa Euskal Herrian.

I. EUSKALDUN FEDEDUN

XIX. mendean euskaldun gehienak fededunak dira. Iparraldean frantses iraultza bururatu bezain laster Elizak bereganatu ditu zituen botereak, bereziki Louis XVIII.a eta Charles X.aren denboran. Hegoaldean Karlistek beren leman aldarrikatzen zuten Jainkoa lehen. Giro horretan bizi da Euskal Herri osoa.

Edozein gai harturik hanitzetan Jainkoa aipatzen du kantu egileak edo Jainkoari egiten dio otoitza. Adibidez Leon Elissamburuk, 1855-eko irabazleak, emazte edaleari –hori baitzen urte hartako gaia– aholku batzu emaiten dizkio:

Bizi iraganari ukho eginik,
Sar beraz hire baithan orai beretik
    Othoitz Jainkoa,
Izan ez hadiela ez lehengoa
    Ez hain flakoa:
Etxean emanen dun bake osoa.

Nola ez, herriko bestak aipatzearekin, eliza besta baita euskaldun hanitzendako:

Alegera gaitezen eta elgar lagun,
Gure eliza besta zelebra dezagun,
Gure Patroin handia eman bitarteko,
Jaunaren aitzinean gu ez ahanzteko,
Eta grazia galda heldu den urteko

Berriz adixkideek elkar ikusteko.

Martin Arrupe (1856)

Ontzakotzale izen ordez igortzen duen kantuaren bigarren bertsuak labur biltzen du zer eta nor den euskalduna, fededuna dudarik gabe.

Eskualdunak lehen xedea bethi du Jainkoarentzat,
Haren ama paregabea edo bertze sainduentzat,
Bethi errespetuz bethea erlijionearentzat
Hark antsia berdingabea du bere arimarentzat
Behin bethiko bizitzia emana zaionarentzat.

Ontzakozale (1856)

Laudoriozko kantuetan, asko baitira enperadoreari edo haren familiari eskainiak, Jainkoari eginikako otoitza irakur daiteke:

Othoitz egin dezagun
Denek Jainkoari,
Eman diotzan lagun
Gure printzeari,
Bere armada guziak
Dohain guziekin
Izan dezan Frantziak
Indar etsaiekin.

Larralde medikua (1858)

edo Jaunak lagun dezala urthetan,
Enperatriza Napoleonekin
Jende interesatutakoekin
Frantzia ederraren abantailetan.

Alexander Meabe (1858)

Bertsulariak bere azken bertsuan ez ditu bazterrera uzten aditzaileak. Haiei mintzo zaie Ibarrart Larrungo mendia aipatzen duelarik:

Aditzale maiteak, bertsu hau azkena,
Desiratzen dautzuet osagarri bana,
Hori da munduan beharrenik dena,
Bihotzez othoizten dut gure Aita ona,
Hil-eta har gaitzala oro bere gana.

(1869)

Gerla aipatzean nola ez galda bakea Zeruko Jaunari

Othoitz egin behar da Jaun Zerukoari,
Indarra eman deion hark bake onari,
Gerla nahi duena daukat urrikari,
Hontan uzten zaituztet zuen zerbitzari.

Joanes Berjes (1871)

Giristino ona baita hartuko du euskaldunak, Jainkoaren manamenduak eta elizarenak behar den bezala zaintzen dituen eta giristinoki bizi den emaztea. Hala gertatzen da «Nere etxea» deritzan Jean Baptiste Elissamburu-ren kantu hain ezagutuan:

Goizean hasiz lanean,
Arratsa heldu denean,
Nagusi naiz mahainean,
Giristino bat ona dut hartu nik emaztea hartzean,
Ez du mehe egunean
Sarthuko uste gabean
Xingar hezurrik eltzean.

(1862)

Jose Maria Iparragirre-k «Laurak bat» goraipatzean urrikitzen da Jainkoaren aitzinean euskaldunen arteko gerlez:

Erruki zaite, o Jaun maitia,
Lagunzu Euskalerria,
Bada guztiok alkartu gera
Orain beltz eta zuria,
Anai arteko guda beti da
Guztizko izugarria...!
Arren anaiak! ...errespetatu
Gizon guztien bizia.

(1879)

Beraz, kantu askotan aipatzen da euskaldunen giro giristinoa. Ideologia bera errepikatzen da kantu egileak gaitzat hautatzen duelarik Jainkoa bera, semea, Ama birjina edo sainduak, kantu egilea izan dadin Iparraldekoa ala Hegoaldekoa. Tituluekin bakarrik asma daiteke kantuaren helburua:

Anonimoa: *Jaungoikoa bera bakarrik da andi* (1879)

Felipe Arrase Beitia: *Jaungoikoaren probidentzia* (1883)

Jesu Kristori eskainiak ere badaude: Juan Jose Alkain-ek 1886-ko Lore jokoetara igortzen du *Bizi bedi Jesus ta il pekatua* kantua, Balbino Garitaonaindiak 1891-an *Jesusen biotzari.*

Jesusen amak badu aipamen: Jean Duvoisin-ek –izan daitekea parte hartzaile eta juje– moldatzen du *Stabat mater* bat aipatuz Mariak jasaiten dituen penak, ahantzi gabe giristinoak egiten dion otoitza:

Ama ona, zain nazazu,
Zure haurra beira zazu,
Ifernuko garretik,

Egidazu gurutzeaz
Semearen pairamenaz
Hazkartzeko grazia

Hiltzen naizen oreneko,
Emadazut arimako
Aingeruen gloria.

(1864)

Gipuzkoar batek aurkezten du 1871-an *Ama birjina sortzez oso garbiari* kantua, berrikitan Elizak erabaki duen fede erakaspenaren alde; urte berean Itsasuar bat Frantziak gerla galdurik urrikaltzen da:

Oihuz nago birjinen birjinari
Othoizten dut ama saindua hori,
Ez dezala ez Frantzia ahantzi,
Bainan lagun orai eta bethi.

(1871)

Urruña Sokorriko ama birjina otoizten du Beñat Dorbe Urruñarrak zortzi bertsutako kantu batean hau delarik errepika:

Gure ama ona urrikal zaizkigu,
Zure laguntza behar guziek baitugu.

(1882)

Ez dira hanbat aipatuak sainduak herri bakoitzak bere patroin saindua ukan arren. San Migel aldiz bai, pentsatuz zer fama eta eragina daukan eta ez Nafarroan bakarrik. (Juan Jose Alkain: *Biba San Migel* 1886). Jainkoaren haunditasunaren aitzinean gizonak neurtzen du zein ttipia den: *Vanitas vanitatum* horretaz ohartua da Jose Artola (1890). Joanes Oxalde ere urrikitan sartzen da ikusiz nola iragan duen lurreko bizia, zahartzeari buruz gorputza mendratzen delarik. Giristinoki bururatzen du kantua:

Ene azken orenian
Herioa heldu denian
Justu izanen naiz agian,
Ama birjina jar dakidala ene arimaren guardian,
Jaun ona bertze aldean
Kurutzea bien erdian
Jujatuko naizenian.

Orduko jujamendua
Arima badut justua,
Oi zer kontsolamendua,
Jainko jaunak emaiten badaut guzien barkamendua
Gozaturen dut zerua
Berak hitzeman tronua
Sekulako deskantsua.

(1890)

Erlisioneak adierazten duen gai bat da bekatua, haien artean zazpi bekatu kapitalak Barnex Atharratzekoak kantatuak 1860-ean *Zazpinoen gehienak* deritzanean. *Urguiluaz* mintzo da Auguste Etcheverry Sarakoa (1866) *zikoizkeriaz* Martin Arrupe (1860), *Hauzilaria* jorratzen du Jean Martin Hiribarren-ek (1864) eta Gratien Ademak, ez oraindik, «Zalduby» apez izanez, mendratzen du *aberatsa* ez balinbada bihozduna, kantuaren tituluak salatzen duen bezala: *Ez du sosak egiten zinezko gizona* (1869). *Alferkeria* da biziorik haundiena. Hala dio Baptiste Curet Donibane Lohizundarrak, Axularri jarraikiz (1860). Gizon alferra ez da sekulan onartua izan Euskal Herrian, gizon langileari aldiz barkatzen zitzaion asko; ildo beretik doaz J. B. Larralde medikua, V. Eliçagaray eta Darricarrère goraipatzen dutelarik lana eta langilea.

Langilea, nahi zaitut khantatu,
Oi! zoin zaren estimagarria,
Lana dela nahi nuke frogatu
Aisiaren ithurri garbia

(1859)

dio Victor Eliçagaray-ek *Itzul hadi* edo *Cœur de Jesus*-en airean, elizako aire horiek erakusten dutela lanaren eta giristinoaren arteko lokarria. Alabainan ez zuena Jainkoak berak manatu Adam-i lot zadin lanari?

Munduaren kreatzean
Jaungoikoak zion erran
Gure aita lehenari:
Lot lanari!

Kantuaren airea: *O filii et filiæ* delarik.

(Darricarrère - 1869)

Ikusiz zer morala dakarten alegiek, lotuko ditut, asko baitira, erlisioneko gaiarekin. Alabainan Auguste Etcheverry-ren *Xirliska eta xinaurria* alferkeriaren kontra doa (1866), P. Dufourq-en *Xinhaurria*-k goraipatzen du lana (1878) eta ez du bertzerik erraiten Piarres Ibarrart-ek bere *Xinaurria eta xoria* alegian

Xinaurriak ziona erran xoriari
Erran ahal daiteke mundu guziari;
Alferra dela usu gose ta egarri.
Lot gaiten beraz denak bihotzez lanari
Lurreko ta zeruko egitekoari.

(1878)

Alegia egilea apeza delarik, hala nola Gratien Adema «Hergaray», *Bildotsa eta otsoa* deitu alegia bururatzen du erakutsiz Jainkoaren nausitasuna:

Otsoak bildotxari egin zioena
Jainkorikan ez balitz, nork liro kondena?
Jainko legetik kanpo zertan da zuzena?
Galde zazu indarrez zoin den nausi dena.

(1873)

Gauza bera gertatzen da *Beharra eta ahala* alegian, egilea Gratien Adema dela:

Aitak erraten dio: «Bethi hola egik,
Ontsa bermatzen denak indar handia dik,
Nik errana hoi zuen, ez zuan bertzerik.
Jainkoak laguntzeko ez duk deus hoberik».

(1887)

Horrek ez du erran nahi erlisionearekin lotuak direla beti alegiak. Berez, genero honek bere nortasuna dauka, bainan ongi doa XIX. mendearen giroarekin bide zuzena erakutsiz jendeari erlisioneak egiten duen bezala.

II. GAI ERROMANTIKOAK

Nahiz erromantiko garaia aspaldian bukatua den Alemanian, Ingalaterran eta Frantzian, geroxago bururatuko delarik Espainian, ez da harritzekoa aurkitzen balinbaditugu gai erromantikoak Abbadiaren Lore jokoetan olerkariak hauta dezakelarik nahi duen gaia.

Horietan aipatzekoak dira etsipena, eritasuna, heriotzea, honekin doan umezurztea, eta amodioak sortzen dituen sendimenduak.

Etsipena:

Nor nahik baino hobeki Jean Gorostarsou-k erakutsi du zer zen etsipena bere 1860-eko olerkian. Dena ilun dago harentzat eta dauzkan sendimendu ilunek iluntzen dituzte ingurumenean dituenak: zerua, lurra, bere bizi guzia. Ez zuten bertzerik pentsatzen erromantikoek ezkontzen zituztelarik barneko mina eta naturaleza.

Hala nola Lamartinek diolarik:

> «Un seul être vous manque et tout est dépeuplé».

Gorostarzu-k eskaintzen dizkigu auhenak lau bertsutan, lehenak daukalarik ezagutua den kantu zahar baten oihartzuna:

> Mendiak bete hedoiez,
> Oihan-errekak daude beltz,
Begiak altxatzen ditut, zeruetan izar bat ez...
Nihon ez duket gozorik, ilun bainago bihotzez.

> Enetzat ez da egunik,
> Nihoiz ere iguzkirik,
Ez hila eta halere hobian nago bizirik,
Ez, enetzat gehiago zeruak ez du argirik.

> Habil, habilkit bizia,
> Urrunt hadi, gezurtia,
Atseginak agindu-ta, minez betea nauk guzia,
Habil, utzak, utz gorputz hau orotarik biluzia.
> Lore guziak arrantze,
> Uki guziak oinhaze,
Ni naiz ama ganik sortu jasaiteko hunenbertze,
Ez da enetzat izanen ez ganbio, ez eztitze.

Bainan «euskaldun fededun» baita ez du bere buruaz bertzerik eginen, aurkituko du esperantza belaunikatuz Ainhoako Arrantze-gaineko Ama birjina-ren oinetan.

Eritasuna:

XIX. mendeko eritasun dorpeena da Hetika edo bularreko eritasuna. Gaitz horrek jotzen zituen jendeak. Errealismo haundirekin bururatzen du bere kantua Beraskoitzeko Darricart-ek

> Lo gabe iragaiten
> Gauik luzeena,
> Alferrik dut emaiten
> Hari gozoena.

Eztulak nau behartzen
Sabeleko mina,
Beti tuka lehertzen
Zorigaitz sumina.

Ai, ai, ai, zerk burua
Hola daut gogortzen,
Zerk begi ingurua
Bixtara uhertzen.
Ez dezaket nik hatsa
Har behar orduan,
Gelditzen da kiratsa
Zintzur hormatuan.

(1860)

Egia da gai hori aipatua zuela Camoussarry-k, gazterik hil aintzin, bere olerkietan. Adibidez:

Trunko baten pareko
Ohean etzana,
Ene gorputza dago
Gaitzak hurren jana;
Ezin ditazke higi
Ene menbro hotzak,
Mihia daukat lodi
Begiak zorrotzak.

Jadanik ezin adi
Mintzo zaizkidanak,
Erdi ikusten, erdi
Nere maiterenak;
Helas! hil aintzineko
Izerdi hormatuak
Dauzkit behin betiko
Gogortu menbroak.

(Menditik nola doa)

Sendi daiteke bien arteko ahaidetasuna erritmo bera daukatela bertsuek.

Gehienetan ez da izendatzen eritasuna, bainan badaki olerkariak hiltzera doala edo hil zorian dagoela. Gaia jadanik aipatua zuen Camoussarry-k 1840-ean:

Hemeretzi urteak ez ditut orainik
Eta hurbildua naiz hobirat jadanik.

Hogei urteren buruan 1860-ean Jean Baptiste Elissamburu-k irabazten du saria «Gazte hiltzerat doana» kantuarekin.

Hogoigarren urtera ari naiz hurbiltzen
Eta nere oinetan tonba dut ikusten.

Gazteak, zorigaitzak joa, «Lore sortu orduko histu baten pare» ez du sekulan zorionik ezagutu. Haurra zelarik umezurtz egon da, gero hamazazpi urtetan maitatu du serora sartuko

den neska, anaia soldado joan-eta hil zaio gerlan eta beraz herioari dei egiten dio ez baitu bizitzeko gutiziarik.

Egia erran olerki horretan gai asko aipatzen ditu Elissamburu-k, zorigaitza, bakartasuna, esperantzarik gabeko amodioa, eritasuna, heriotzea, gai osoki erromantikoak. Garai berean bertze olerkari batzuen kezka bera da: 1859-an Detcheperestou-k igortzen du Urruñara «Gizon gazte baten azken kantua», 1860-ean De Beron batek «Gazte eta hil behar», geroxago 1868-an Sarara Augustin Etcheverry-k «Haurra hobi hegian» eta 1869-an olerki berbera, pixka bat aldaturik titulu honekin «Hiltzera dohan haur baten auhenak» bururatzen duelarik «euskaldun fededun» gisa.

Ez beraz, ama ona, ez egin nigarrik,
Suntsitzen naizelakotz Mundupe huntarik
Ez zaitut ahantziren zeru gorenean
Non ez zaren enekin zorion berean.

Aipatzekoa da Larralde medikuaren «Eria errexiñoletari». Ohean dago eria, ezin lokartuz. Gauaz entzuten du errexiñoleta kantuz ari, maitasunez edo hasperenez. Harreman eztiak sortzen dira eria eta errexiñoletaren artean, bakartasunean bizi baita eria, mundutik urrundua. Beharrezkoa du errexiñoletaren adixkidantza, epe laburrekoa, heldu delakotz negua.

Zertako primaderak
Ez iraun betiko!
Ipar goxo, loreak
Bakarrik lekuko!
Laster (zorigaitzean!)
Denboraren ihes,
Ganen haiz ni ohean
Utzirik nigarrez.

(1865)

Eritasunari hurbil daude gerlak gorputzean utzi dituen ondorio latzak. Famatua da «Solferinoko itsua» deritzan kantua (1864). Gazte, soldado, begia erne eta, betbetan, gau beltza, bakartasunera deitua:

Zorigaitzean baitut ikusi Solferinoko hegia!
Alferretan dut geroztik deitzen iguzkiaren argia.

Bertsuetan aurkitzen diren hitz dorpeak aditzera emaiten dute itsuaren pairamena: «betiko gaua», «betiko estali», «betiko itzali», «amets histu bat iduri». Bertsu bakoitzak badauka bere oihu samina, azkenak salatzen duelarik zorigaitzean eta bakartasunean bizi den gizon gaztea.

Herriko bestan, gazte lagunak kantuz plazara dohatzi,
Eta ni beltzik, etxe xokoan irri egiten ahantzi.

Horrekin neurt daiteke gaztearen etsipena.

Itsuaren gaia hartu zuen Piarres Dibarrart-ek 1873-an, bainan ez du «Solferinoko itsua» olerkiaren indarra eta samindura.

Heriotzearekin lotua da aitamen galtzea, umezurtz gelditzea eta, berdin, haur hatzemana edo haur kausitua izaitea aitamek abandonaturik, hori baitzen, mendeetan zehar, behar gorriaren ondorioa.

Umezurtzaren urrikiak eskaintzen dizkigu J. Saubaber-ek «Ume eskergabe baten doluminak eta erakuspenak» deitzen den kantuan. Tituluak dion bezala, amarik gabe gelditzen delarik, haurrak ikusten du eta aitortzen zein hobendun den ez baitu ama aski maitatu. Kantu osoki morala «euskaldun fededun» antzekoa azken bertsua lekuko:

Gaizkiaren sariak ez heda munduan,
Aski da dohakabe infernuko suan,
Dezazu segi xuxen jaunaren legea,
Zeruan du saria, lurrean bakea.

(1859)

«Umexurtx erromes baten auhenak» deritzan kantuak erakusten digu aitama gaberik den haurra, eskale bilakatua, etorkizunarik gabekoa; ez du aterabiderik heriotzean baizik:

Sehaskatik hobirat bide luzeena
Gizoneri zaiote maizik laburrena
Orena bada, Jauna betorkit hil-kutxa!
Urrikal zaite nitaz ni naiz ume-xurtxa!

(1885)

1890-ean oraindik Piarres Ibarrart-ek igortzen du Mauleko Lore jokoetara bere «Bildots ait'amez gabetua» Bildotsaren metaforaz baliatuz erakusten du nola prestu izanez ez dezake ukan otsoaren beldurrik eta ohiko moralarekin bururatzen du olerkia:

Umezurtz prestu hori ekarriz gogora,
Bizi bedi gaztea horren arabera,
Apal sortu zuhurra altxa daite gora,
Aberats ergela da jautsiko behera.

Haur hatzemanak edo kausituak agertzen ditu haurraren auhenak eta erasiak abandonatu duten aitamen kontra. Baptiste Curet Donibane Lohizunekoa bortizki mintzo da

Ama bihotz gabea, Aita zu iduri,
Zorigaitzez nauzue eman munduari,
Barka zozute Jauna hoben handi hori
Otoitz eginen zaitut orai eta beti

(1863)

Halere sendimendu onez betea da haurra, barkatzen baitie aitamei eta otoitz egiten haientzat. Fedearen eragina ikus daiteke ere azken bertsuan, Jaunak deiturik aingeruekin baitago zeruko lorian.

Bi aldiz Martin Arrupe-k, 1868-an Saran eta 1887 Azkainen, kantu bera edo pixka bat aldatua igortzen du «Haur kausitua» tituluarekin. Betiko mehatxuak entzuten ditugu bainan barkatzen die aitamei hogei urteren buruan Azkaingo kantuan Sarakoan aldiz beti kezkaturik dagoela aitamen bila.

Amodioa:

Gai erromantiko nagusia amodioa da. Lamartine, Victor Hugo, Vigny, Musset, bakoitza bere nortasunarekin, gai horretaz jabetzen dira, goraipatuz maitearen edertasuna, elgarrekilako sendimendu sakonak, separatzeko memento latzak, bilatuz elgarretaratu ziren tokietan oren goxoenen oroitzapenak.

Gaia libro zelarik sartu dira olerkariak amodiozko kantuetan, bainan segituz ohidura zaharra (XVIII. mendekoa) konparatuz maitea izarrari, loreari, usoari edo urtxapalari. Ene tesian esplikatu dut zer ziren maitearen izenak XVIII. mendean: izarra ezin hunkizko maitea, lorea bil eta beretu daitekena, usoa saretan hatzeman daitekena eta urtxapala maitaleak enganatzen duena. Izarra aipatzen du Piarres Mendi-k (Maitiari) 1858-an:

Goiz et'arrats, gau et'egunez,
Gogoa eri dut zinez,
Ezin bizi, ezin hil minez,
Izar hura beharrez
Bihotza doakit nigarrez
Eztukedan beldurrez.

Nahiz agertzen dituen sendimendu sakonak, argi eta garbi dago –eta badaki– daukan amodioak ez duela etorkizunik.

Martin Guilbeau-k 1863-an bi kantu igortzen ditu Urruñara «Nere maiterena» eta «Adios nere maiteari». Lehenean biltzen ditu hiru metafora maitearen deitzeko: izar, lili, aingeru:

Oi lili xarmangarri! Oi aingeru ona!
Zu zare bakarrik ene zoriona.
Erra dautazu izar ederrena
Ni naizela munduan zure maiterena.

Azken bertsua, erantzunik gabekoa.

Bigarren kantuan, dirudianez lehenaren segida, zabaltzen ditu bihotzeko penak azken adioa egiten diolarik izar paregabeari, lili xarmagarriari.

Dudarik gabe olerki pollitena Jean Baptiste Elissamburu-ren «Apexa eta lorea» da, apexa dela mutikoa, lorea neskatxa. Elgarrekilako amodioa kondatzen du, nola sortu ziren biak egun berean, lorearen auhenak egunez urruntzen zaiolakotz apexa.

Hona haien elkarrizketa:

Apexa

Zertako nigar egin, oi lili maitea?
Egunaz iguzkia dun ene jabea;
Goizetik lorez lore dun ene bidea,
Iguzkia sartzean beti naun hirea

Lorea

Goiz guziez «Adio», arratsean «Agur»...
Egunak luze dituk, gauak hainitz labur;
Nere nigarrez, otoi, ez hadila samur,
Zeren hire galtzeaz beti bainauk beldur.

(1862)

Haize madarikatu batek urrunera derama apexa eta desertuan dago apexa auhenka, lorea aldiz sor-lekuan nigarrez. Bainan primaderan haizeak dakarrelarik apexa, lorea lurperatua da. Betiko separatzea.

Hil haiz!... orai neretzat deus ez dun bizia.

Alegia horrek –alegia idurikoa baita– badu usain erromantikoa biltzen dituelarik elgarrekilako amodioa, berexteak sortzen dituen penak eta azkenik heriotzea.

Ez dira beti auhenka arizan erromantikoak iragan amodioaz oroituz. Jadanik Alfred de Musset-ek erabiltzen zuen «jorratze azotea» edo «eztenkadaren zigorra» nigarzaleen kontra:

Je hais les pleurards, les rêveurs à nacelles,
Les amants de la nuit, des lacs, des cascatelles,
Cette engeance sans nom qui ne peut faire un pas
Sans s'inonder de vers, de pleurs et d'agendas.
(La coupe et les lèvres)

Erromantikoen aurka, maitearen goraipatzearen kontra agertzen da Euskal Herrian emaztearen kritika 1855-eko lore jokoetan gai bakarra delarik emazte edalea.

Leon Elissamburu-k, Jean Baptiste-n anaiak irabazi zuen lehen saria. Olerkari gehienek «incipit» gisa hartu dute «Hau da ikazketako mandoaren traza», aire alaia bere erritmo bereziarekin nahasiz 12 silabako neurtitzak bortzekoekin. (12-12-5-12-5-12-12) Aspaldian ezagutua zen gai hori euskal literaturan. Jadanik XVIII. mendean Oihenart-ek jorratu zituen «lau karbariak» laur karbarien eresian.

«Egarriz bortx'egon-eta, nehork ez hek urrikari».

Gogora ditzagun ere hain ezagutuak diren kantuak hala nola «Mendekosteko pestetan», Arnegiko errekan, bost emaztek edan dituztelarik hamalau pinta arno betan, jokaturik kartetan. Edan, jokatu, mokokatu, hala dabila emaztea «hurren dagolarik zahagia». Donostiako hiru damatxoek josten balinbadakite ardo edaten hobeki, apostu egin dutela nork ardo gehiago edan eta zein gutxiago mozkortu.

Nahiz geroxago agertu zuen «Iragan besta bigarrenean» deritzan kantua, Jean Baptiste Elissamburu-k ironiaz betea kondatzen ditu lau andreren –hiru mutxurdin eta bat alarguna– jokaldiak trukian eta mokokaldiak gero, soberaxe edanik.

Ez da bakarrik emazte edalea jorratzen. Hanbat akats dauzka emazteak eta loriatzen dira kantu egileak haien agertzen. Kalakaria da, egiazko hitzuntzia Inazio Harambeltz-ek (hobeki erran Gratien Ademak) dionez:

Gure herri xumetan zenbat hitzuntzi
Heien mihi pozoiak beti pitzitzi
Nausituz dotzi,
Nahiz hobe litezken bere gisa utzi
Zokoan ahantzi
Pertsu hautaz diotet mila goraintzi.

(1859)

Alferra dela ere diote. Aski da irakurtzea Baluyan deritzan baten «Oraiko neskatxen moduba» (1858), alaba eta amaren arteko solasek salatzen dutela ez daukatela gogo haundirik laneko.

Zer nahi diru xahutzen du emazteak moda segitu beharrez. Hain zuzen 1850-eko hamarkadan da krinolinaren moda, Leon Elissamburu-k gaitzesten duena bertsu hau dela lekuko:

Iragan egun batez, zen komedia,
Plaza baten erdian ikusgarria,

Hango irria,
Andre bat zen piaiaz joan nahia
Ezin abia!
Karrosan etziron sar gibel aldia.

(1858)

Mutil zaharrak baitira kantu egileetan, haiek nehork baino hobeki biltzen dituzte emaztearen akats guziak hala nola Larralde medikuak 1864-ean Saran bere «Mutil zaharra» olerkiarekin, bertsu guzien azken neurtitzak direla.

«Ez, ez nahiago dut egon mutil zahar».

edo zerbait gisakoa, aldaketa ttipi batzuekin.

Diru xahutzale moda segituz, etxeko andere ona eta zuhurra ez izanez, denbora pasatuz mirailaren aintzinean-eta abar... pentsatzen duelarik ez dela zinezko etxeko andere zintzorik.

Oi! hauxe da mendea gizon gazteendako!
Orai andreak dire jaunen larrutzeko,
Ez ote da, diozu, xuhur zenbait bakar?
Ez nezake zin egin, gauden mutil-zahar.

Donado izanikan ere emazte baten beharra dauka, sehi bat Gerexaniño deitua. Gaixo Gerexaniño! Egiten dituenak beti gaizki eginak: bazterrak garbitu beharrez zikintzen ditu, platera eta edalontziak hausten, bi zorigaitzak elkartuz edalontzia arnoz betea delarik. Bururatzen du kantua:

Horra nere neskatxa,
Gisa guziz artexa,
Balinbada erosdunik
Salduko diot, bai, nik,
Emanen diot merke
Merke izan baditeke.

(1864)

Joanes Berjes-ek 1867-an jorratzen ditu oraiko neskatxak, dituzten akats guziak aipatuz. Horrek aditzera emaiten du emaztearen gaia eta bereziki haren jorratzea, aspaldikoa dela.

Bainan erantzun bat ukanen du Larralde medikuak Ezpeletar baten ganik, David medikuaren ganik. Adibidez hona bertsu bat:

Maiz donado zaharra ase eta alfer,
Nexkan tatxa guzien aipatzen du plazer,
Eta izan dain bera maingu, konkor, oker,
Segur bere buruia kausitzen du eder.

(1865)

Emazte edalearen bertsuen kontra Pierre Haraneder-ek azaltzen du gizon edalearena. (1858). Pello-k ere hartzen ditu bereak, ikusiz nola iragaiten dituen igandeak, goizetik sartua ostatuan, jan eta edan ederki asez, merkatuetan ibiliz eta handik berant sartuz, gehienetan mozkorra. Hona beraz gizon hordiaren itxura. Hola bakoitzak bereak dauzka.

III. BASERRITAR GIROA

Hiri guti Euskal Herrian ez baita oraindik sortua industri-iraultza. Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz eta Baiona hiri ttipiak dira eta euskaldun gehiena baserrietan eta herrietan bizi da. Herria, etxea, herri baten ingurumena, jakinki giristinoa dela, horiek orotara sortzen dute baserritar giroa olerkariek goretsiko dutena XX. mendean ere, hain sartua baita euskaldunen gogoetan.

Etxea,

hobeki erran etxaldea da euskal gizarteak daukan aberastasunik haundiena. Han bizi da laborari familia, zahar eta gazteak, han ari dira lanean, han sortzen, ezkontzen, hiltzen. Nahiz ez zuen urte hartan (1862-an) lehen saria irabazi, Jean Baptiste Elissamburu-ren «Nere etxea» kantuak ukan du eta dauka orain ere arrakasta izigarria, kantatzen baita noiz nahi, edozein biltzarretan. Zertako ote halako arrakasta? Doñu edo aire ederra duelakotz? Ez dut uste. Familiaren, etxearen, baserritar giroaren eredu delakotz XIX. mendearentzat eta orain hiritartua den Euskal Herri honetan «parabisu galduaren» itxura duelakotz.

Zinezko eredua: etxea lehenik, aintzin xuria, teilatu gorria, bazterrak berde, ez ote dira kolore ezagutuak bereziki XX. mendean. Han datza goxotasuna, lau haritzen itzalean, iturriñoaren ur xirripa freskoak kantatzen duela gau eta egun. Ez pentsa jauregi bat dela etxea, bainan, gehiago dena, sort-etxea da familia berak belaunaldiz belaunaldi atxiki duena eta sekulan utziko ez duena. Etxaldea, laborari etxea bere tresneriarekin (akilo, haitzur, goldeak, uztarri eta hedeak) bizia segurtatzen duena lanean ariz. Hor dira ere abereak, egiazko aberastasuna behi, idi, zikiro, bildots, ahuntz eta artaldea.

Orduan laborariak salatzen du bere zoriona bertsu batean, familia bildurik daukala:

Ez da munduan gizonik
Erregerik ez printzerik
Ni bezain urusa denik;
Badut andrea, badut semea, badut alaba ere nik,
Osasun ona batetik,
Ontasun aski bertzetik,
Zer behar dut gehiago nik?

Laboraria egiazko errege: etxea, etxaldea, familia, osasuna, ontasuna, denak dauzka eskuetan, horiek egiten dutelarik lur hontako zoriona.

Familia ere eredutzat har dezakegu: senarrak lana maite du, goizetik lanari lotua, emazte giristino batekin ezkondua, erlisionearen urratsak segitzen dituena, zinezko etxeko andrea beti prest bertzeen laguntzeko, utziz beti toki bat mahainean erromesarentzat. Semea aita idurikoa, langilea, segida hartuko duena etxaldea galtzerat utzi gabe. Alaba neskatxa pollita bere begi urdinekin, amak behar den bezala hezten duena, biharko etxeko andre ona izan dadin.

Hona, hamar bertsutan baserritar giroaren bilduma, laborariaren eta bere familiaren goraipamena, euskal gizarteak eta Euskal Herriak daukaten zimendurik azkarrena, errorik sakonena. Ez dezagun ahantz 1854-eko Lore jokoen gai bakarra zela laboraria.

Jadanik 1859-an Jean Gorostarzu-Harostegi-k laudatu zuen «etxeko xokoa» erakutsiz etxetik kanpo ez dela aise bizitzea, egiazko zoriona etxean datzala, Orhiko xoria eredutzat harturik.

Orhiko xoria Orhin laketik da bizitzen,
Bere larre sasietan ez da hura unatzen,
Han zen sortu, han handitu, han hasi zen maitatzen,
Han bere umen artean gozoki du kantatzen.

Etxean den erregina da etxeko anderea. Berriz ere haren goraipatzeko Jean-Baptiste Elissamburu-k «Maria» deritzan kantua aurkezten du Saran 1866-an. Maria da, azkenean; euskal emaztearen eredua. Egiazko panpina da Maria, gorputzez eder,

«Golkoz aberats eta lerden gerria»

langilea, erlea bezain langilea

«Erle bat da Maria etxe barnean».

bere eginbidea betez (baratzea, eta bertze).

«Mariak baratzetik badu berea»

eta «Arroltze lau dotzena, oilasko bia
Salduz guzia
Zertako den aberats horra Maria».

Denen gainetik emazte zintzoa eta giristinoa, elizako bidean doalarik igandetan, zinez panpina. Orduan dio olerkariak.

«Errege balinbanintz, zer erregina!»

Augustin Etcheverry-k gai bera hartuko du bere «Etxeko andrea» kantuan 1868-an Saran.

Jorratzen balinbaditu emazteak Larralde medikuak mutil zahar gisa, goretsiko du aldiz ama Urruñan 1859-an «Ama haurraren sehaskan lohakartzen» kantuarekin. Kantu hunkigarria, sendimenduz betea:

Lo! lo! nere maitea
Lo! ni naiz zurekin;
Lo! lo! paregabea
Nigarrik ez egin.

Frantzisko Lopez Alen-ek ere gai bera aipatuko du Azpeitiako Lore jokoetan 1893-an, ama eta haurraren arteko lokarri sendoak adieraziz, bereziki azken bertsuan, «o» bokal eztia neurtitzez nagusitzen delarik

«Nere maitia lo ta lo,
Egingo degu gozoro...!
Zuk orain eta nik gero
Biyak egingo degu lo... lo... lo...!»

Nola, euskal familian, ahantz Amatxo? Gratien Adema «Haranbeltz» eta ez oraindik «Zaldubi» 1867-an baigaude, oroit da hartaz, asmatuz amatxoren eta bere bilobatxoaren arteko elkarrizketa eta bien arteko atxikimendua. Urrun gara emazte edalearen eta emazteen akatsen jorratzetik. Bere toki haundia dauka emazteak euskaldun familian.

Baserritar giroa herriaren ingurumenean datza. Laboraria, erran dugu lore joko batzuen gaia izana zela, ez da bakarrik bizi, bada bertze jenderik hala nola artzaina. Artzaina edo artzaintsa laboraria bezainbat goretsia da. «Artzain dohatsua», zer titulu adierazkorra! Pierre

Mendibil-ek ikusten du etxola jauregi parekoa, artaldea alhan, artzaina denen nagusi, kantuz mendien artean. (1859) Joanes Berjes Saratarrak 1865-ean aipatzen du mendia, handik besarka daiteken mundua, Senpertar batek bere kantuan «Artzain ona» (1871) munduko arrabotsei ihes egiten diolarik, Larrun mendian kausitzen duela bakartasun zoriontsua. «Artzain zuhurra» da Jauregiberri-ren gaia 1875-ean: harrizko etxola, ura edaritzat, talo eta gasna jateko, ez du ahanzten jaustea herrirat mezaren entzuteko.

Etxola, artaldea, mendiak hedatzen duen bake gozoa, bas-ihizien otsak, xorien kantuak, horiek dira artzaintsaren atseginak, zorionez beterik bizi baita, bakartasunean, mendi mazela batean, zeruari hurbil. Hala ikusten eta kantatzen du P. Ibarrart-ek.

Baserritarrak langileak dira. Haien artean ez dago alferrik. Halaber baserritar giroan bizi direnak ikazkina adibidez, Ibarrartek kantatua (Sara, 1882). Hortakotz goresten da lana eta langilea, Victor Eliçagaray-ek egiten duen bezala.

Langilea nahi zaitut kantatu
Oi! zoin zaren estimagarria,
Lana dela nahi nuke frogatu
Aisiaren iturri garbia.

(1859)

Euskal Herria ez da bakarrik lurra, itsasoa da ere. Arrantzaleek eta mariñelek beren eginbidea betetzen dute artoski. Mariñelaren joan etorriak kondatzen ditu Martin Guilbeau-k (1859), haien nekeak, bizi bortitza etxetik urrundua, lanjerretan beti. Gai bera hartzen dute Errecart Miarriztarrak (1860), Betiri Olhando-k (1863) honek ironiaz betea diolarik.

Hil leihorrean
Ala urean
Deus ez du erran nahi azkenean.
Dudalarik arima bakean
Ehortz arrain baten sabelean
Ez dut axola
Mariñel ona kontent da hola
Egarri naiz, hunat botoila.

Hiritarra eta baserritarra, haien arteko eztabaidak Piarres Ibarrart-ek eskaintzen ditu Kanboko Lore jokoetan 1888-an. Eztei batzuetan elgarretaratzen dira eta hiritarra haundirekin jakintsun gisa agertzen da eta apezen kontra mintzatzen erranez ez dela bigarren bizirik, ez zorion ez zorigaitzik, akabo dela hilez geroztik. Denak mutu egoiten dira salbu Mendigaineko Pierra ttipi baserritarra, galdegiten diola nor den lehen, oiloa ala arroltzea, hazia ala landarea. Azken bertsuetan ikusten dira jakintsunaren zalantzak, baserritar xumearen zentzu ona dela irabazle.

Jaun haundi hori hasi zen kantuz,
Bizarra eskuz bihurdikatuz,
Gehiago deus ezin asmatuz,
Behin errana gero ukatuz,
Bere burua ezin garbituz,
Hura zen hura tonto Pilatus.

(1888)

Baserritar giroa agertzen da ere herriko bestetan. Gai hori eman zen 1856-eko Lore jokoetan, orduan etorri baitzen Urruñara Luis Luziano Bonaparte printzea. Karia horietara ez dira eskas kantuak, gehienek kantatzen dutela lehenik eliza besta, igandea delarik hortara eskainia. Herriko besta denena da, zahar ala gazte, familia elgarretaratzen delarik ahaide eta jendakia deiturik. Larralde medikuak biltzen ditu bere kantuan herriko bestetan diren gertakariak, pilota partidak eta bertze, erakutsiz ere nola apailatzen diren bereziki gazteak

Gizon gazte gorputz lerdena, hunat gerriko gorria
Eta zuk neskatxa kriketa, laster kaxa soin xuria.

eta bururatzen du bertsua:

Goazen goazen, zahar gazteak, goazen herriko plazara
Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzera.

Salvat Daguerre Hazpandarrak zortzi punduko bertsuetan adierazten dituenetarik hautatzen ditut lehen bertsuko hiru neurtitz ttipiak.

Pilotan jokatu,
Oneski dantzatu,
Gostuz libertitu

(1856)

horiek baitira elizak nahi zituenak, bereziki dantza onestak eta ez dantza galgarriak.

Hiribarrenek, holako piko bat igortzen du:

«Urte guziz eskaldunek besta egiten dute
Ez izanik ere beti lekuko Bonaparte».

(1856)

Herriko bestari datxizkie euskaldunen ohidura zaharrak haien artean dela pilota Gratien Adema izanen delarik xantrea (1859 - Urruña), aipatuz lehengo eta orduko pilotari famatuak, gauza bera egiten duelarik anonimo batek 1862-an. Kantu horiek interesgarriak dira pilotaren historiarentzat.

Dantzak ere badu bere tokia Herriko bestetan, dantza onestak jadanik erran den bezala. Leon Elissamburu-k (1860 - Urruña) «Dantzaria» deritzan kantu alegeran hasten ditu bertsu guziak «Ho-pa» hitzarekin azpimarratuz dantzariaren arintasuna. Kantariek eta kantuek alegeratzen dituzte bestak. Euskalduna famatua da kantu zaharrak emaiten dituelarik, halaber kantu berriak. Piarres Ibarrart-ek konparatzen du kantaria errexiñoletarekin (1875 - Sara).

Nere deskantsuaren hartzera gan-eta
Ardura entzuten dut errexiñoleta,
Kantarien errege, kanta zazu, kanta
Zuk gauaz, nik egunaz, ez gaitezen trixta.

Bertsulariak parte hartzen du bestetan, hain zuzen Lore jokoetan Antonio Abbadia-k sortu baitzuen zein gehiagoko bat. Mauleko Lore jokoetan 1890-ean Joanes Oxalde-k eskaini zuen «Etxahun Barkoxtarrak eta Oxalde Bidarraitarrak elgar errekontratu zirenean eman zituzten kantuak» deritzan olerkia. Jadanik horretaz mintzatu naiz eta agertarazi artikulu bat erakutsiz nahi zukeela saria irabazi eta hortakotz, Maulen zirelakoan Lore jokoak, asmatu zuela bi bertsularien arteko joko atsegina, goraipatuz Xuberotar olerkaria.

Herri-mina:

Baserritar giroari lotzen diot herri-mina. Behar gorrian izanez euskaldun asko herbesteratu da. Lehenbiziko Lore jokoetan hain zuzen hau zen gaia: «Montebideora doan euskal gaztearen bihotz-minak». Alabainan bazuen hogei bat urte joaiten zirela Ameriketara euskaldunak, bereziki iparraldekoak. Kezkatuak ziren agintariak kontseilu orokorreko deliberoek azaltzen duten bezala. Iparraldea husten ari zen, gazteak galduz bereziki. Hortakotz Antonio Abbadia-k eta Lore jokoetako epai mahaikoek hautatu zuten gai hori.

Sarituak izan ziren Celhabe Bardoztarra (urre ontza) eta Garaztarra (makila) izenorde horren pean zela Landerretxe Mauleko erretora, agertu ez zena eta orduan Celhabe-k ukan zituen bi sariak. Halere ene iritziz Landerretxerena hobea da bere errepikarekin

«Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola?

aipatuz herbestuaren trixtura, urrikituz ukan duen lilluraz, senditu jadanik herri-mina:

Eskual Herri maitea,
Herri paregabea,
Hiltzea da neretzat
Hi gabe bizitzea!
Ene bihotza nola
Nola daite kontsola?

(1853)

Dena errana da eta kantu guziek gauza bera errepikatuko dute. Gai horrek ukanen du arrakasta olerkarien artean, berriz hartua izanen baita kasik berrogei urtez

1857-an Ithurbide: *Eskaldun baten auhenak.*
1858-an Etchebarne: *Ameriketako partiada*

ama-alaba batzuen elkarrizketa, alabak nahi duelarik utzi etxea, osoki lilluratua.

Amerika leku ederra, eder bezain aberatsa!
Hire izena entzuteak erretzen deraut bihotza:
Hi egun batez ikusteko ni ez nuk deuseren lotsa,
Burlatzen ditut itsasoa eta herio garratza.

Bainan kantu gehienek aments-histura derasate. Joseph Palassie Kanboarra (1858), Martin Guilbeau (1859), Martin Arrupe (1860), AN apeza Donapaleuko ondokoa (1863), Jauregizahar Arbotikoa (1864), J. Mendiburu (1866), An Gipuzkoarra (1866), denek lelo bera kantatzen dute.

Hamar urte pasa dira eta berriz hasten dira aitortuz Ameriketan dauden oztopoak, bizi nekea: Pierre Etchegoyen Saratarra (1876), Dominika Goyetche (1876), Martin Arrupe (1879), Joanes Oxalde-k (1880) bere «Beranteko urrikiak» kantuan salatzen dituela eta kontseilua emaiten du:

Ene haurride gazteak
Ez segi ene bideak,
Iturri kiratsetan edan du zuen anaia maiteak
Hemen egunak luze dohazko nola herrian urteak.

Karmelo Etxegarai (1886), Klaudio Otaegi (1889) eta Bizente Etchegaray Urruñarra (1890) izanen dira azkenak Ameriketako lilluraz eta herri-minaz arduratuko direnak Lore jokoetako kantuetan.

Herritik urruntzeak sortzen du euskaldunarentzat egiazko herri-mina. Batzu doatzi armadara. Etchepare deitu batek, Magentako guduan zauritua, gerlara partitzeko tenorea gogoratzen du (1864). 1870-eko gerlatik landa presonier bat, denbora latzak iraganik, berriz etortzen da sort-herrira bihotza alaiturik. Hau da Piarres Ibarrart-en gaia 1872-an.

Bainan, nonbaitik ere, Jean-Baptiste Elissamburu-k bere «Xori berriketaria»-rekin denek baino hobeki sendiarazten du zer den herri-mina. Egia da luzaz egona dela herritik kanpo, armadan iraganez hanbat eta hanbat urte.

Sor lekua utziz geroz ondikoz hala beharrez!
Jainko ona urrikalduz betiko nere nigarrez.
Primadera hasi ordukoz arbolak estaltzen lorez,
Xoritto bat heldu da bethi nere herritik hegalez.
(1871)

Xoria da mezularia, herbestuaren eta herriaren arteko lokarriak gordetzen dituenak. Mintzatzen zaio atzerritua arbolarik hurbilena du(elarik) bere pausa lekua. «Pausa hadi», «Oroit hadi», «Atzar hadi»,... Mintzatzen zaio goxoki baitaki bidaia luzea egin duela: «Pausa hadi»... Galdegiten dizkio herriko berriak: «Oroit hadi»... eta gero «mintza hakit», nehor ahantzi gabe... Bainan berrien jakiteko xoriak behar du jautsi hurbil hurbila, iduriz ahapetik mintzatzeko, bien arteko segeretuak baitira. Kantu intimista hori bukatzen da otoitz batekin. Jakinik lanjerretan dela xoria, ihiztariari galdegiten dio utz dezan libro, herri-minaren soleitzeko xoria baita atzerrituak herriarekin eta etxekoekin duen lokarririk bakarra. Ez dut uste nehork ez duela hobeki adierazi, ñabardura guziekin, zer den euskaldunak daukan herri-mina.

IV. POLITIKA

Aspaldi danik Euskal Herria zatikatua da muga bat dagolarik Iparraldea eta Hegoaldearen artean. Luzaz begiak itzuliak ziren Parisera edo Madrilera buruz, bi hiri nagusi horietan egiten zelakotz politika.

Inperioa eta orduko gerlak

Hain zuzen Antonio Abbadia-k sortzen dituelarik Lore jokoak Napoleon III.na nagusi da Frantzian. Errege baino gehiago, enperadore da eta osabaren itzalpean dago. Itzal horri esker izendatu dute Frantsesek Errepublikako president eta gero, berak, Oxalde-k dion bezala abilezia bat eginez, enperadore bilakatu. Gehiago dena, ezkonduko da Eugenia de Montijo anderearekin, Bizkaian den Arteagako gazteluaren jabea, euskalduna beraz. Miarritzera etorriko dira urtero semearekin. Enperadorea, haren familia, gai ona kantu egileentzat.

Badakite euskaldunek aspaldian zer diren laudoriozko kantuak. Ezagutuak dira euskal literaturan XVI. mendetik haste. Egia da berdin gertatzen dela edozein literaturatan. Agertzen dira ugari Lore jokoetan. Laudatzen da lehenik bakea sortu eta lortu duelakotz errepublikaren nahasmenduen ondotik, agertzen da ere bozkarioa, ezkonduz eta semea sortuz gero (Martin Arrupe - 1858). Duvoisin-ek idazten du «Laurier et Chêne» deritzan kantua (1858), azpititulua

dela «Cantate allégorique sur le mariage de l'Empereur et sur la naissance du Prince impérial». Bozkariatu behar du Euskal Herriak euskal arrazatik baita enperatriza eta semea sortuz

Haritzari erramu
Baitzaio xertatu!

Horretaz Kantabrea bozten da eta bozkariozko kantua bururatzen da frantses nazionalismoaren himno gisa.

Goazen beraz, goazen oro
Haren inguratzera,
Ageri daite gero,
Non jinen den oldartzera!
Altxa dezagun bandera
Eta ezar ikara,
Dugun kanta batean
Biba Enperadorea!
Gure begiratzailea!
Biba gure Andrea!
Biba gure Printzea!
Biba Frantzia!
Biba Eskal Herria!

Berehala lotzen zaie Enperadorearen loria gerlari eta bitoriari.

Munduaren lau bazterretan,
Gure banderak untzietan
Gorarik argitzen du
Rusianoa izitu
Mairu beltza gaztigatu
Anglesa larderiatu
Ohorerik aski badu

(Bernard E. 1858)

Agustin Etcheberri-k bi bertsu eskaintzen dizkio Enperadoreari. Lehena bururatzen da:

Kanta dezagun: Biba Frantzia!

Bigarrena, asma daiteken bezala:

Biba gure Enperadorea!

(1858)

Anonimo batek euskalduntzen du printze ttipia:

Ez dakizuke gaitzi Enperadorea,
Gure egin dezagun zure haur noblea,
Barka ezaguzuke gure ausartzia
Ibero alaba da zure Eugenia.

Miarritzen delarik egun batez igaiten da enperatriza Larrunera. Hori, bai, egiazko balentria. Orduko prentsa horretaz bakarrik mintzo da. Euskal kantuak sortu dira ere, hiru agertzen direla Lore jokoetan. Haien artean hona «perla»

Larrungo mendia

Izan duk beraz aldia,
Ikusteko egun handia,
Inperatriza jiten
Hiri agur egiten
Nola ahantz Eugenia
Tronuen lili nagusia
Izar berezia,
Bozkaria hadi
Egon beti handi.

(1860)

Anonimo batek igorria. Hala biz'!

Azkenik 1869-an Piarres Ibarrart-ek aipatuko du Larrungo mendia gogoraziz Enperatriza kaskora igan zela. Hori da azkena. Sic transit gloria mundi! Egia erran ez dio kantu klase horrek esker haundirik egin euskal literaturari.

Gerlak:

Errusiako gerlarekin gogoarazten du Leon Elissamburu-k zer izan diren frantses armadaren balentriak, ahantzi gabe osabarenak. (1858)

Italiakoak aipatzen ditu 1859-an Joanes Etcheto Senpereko errientak betiko «Biba biba Enperadorea» leloarekin eta asko aipatua 1860-an Solferino-ko gudua betiko espantuekin. Oroit gaiten halere zer izan ziren ondorioak soldadoentzat «Solferinoko itsua» kantu hunkigarriarekin.

Hilak eta zaurituak izanikan ere, badira soldado joan nahi dutenak. Darrigol 1863-an da lekuko diolarik seigarren bertsuan:

Halere nuzu beti huntaz oroituko
Ene odola dela Frantziarendako,
Hura mintzatu eta dizut sinetsiko,
Ez nuzu lotsaturen etxetik joaiteko.

Martin Darrupe-k ere lelo bera dauka «Gizon gazte soldado zortean erorien animoa». Zinez soldado gazte horrek badauka kuraie eta animo, diolarik:

Biba, biba Frantzia,
Biba gure bandera,
Fidelki gaiten lehia,
Oraiko lege bera:
Beti dagon
Biba, biba Napoleon.

(1866)

Erromako aferez (1868-1870) Oxalde eta Jean Landart arduratzen dira, horiekin segitzen direla Napoleon-en garaian izan diren gerla eta gertakari guziak.

1870-eko gerlak ukanen du arrakasta kantu egileen artean, 1871-ko Lore jokoetan agertu baitziren asko, deitoratuz gerlaren galtzea, aipatuz ere frantsesen artean izan zen guduka «Versailles-en» eta Pariseko «commune» delakoen artean, azken hauek «gorriak» deituak.

Joanes Berjes eta Piarres Ibarrart-ek gai hori sartzen dute kantuetan (1871). Jadanik Napoleon ahantzia da, bertze garai batean bizi da Euskal Herria.

Lehen karlistadako kantuak aipatu ditut artikulu batean eta harriturik nago nolaz ez zen gehiago holako kanturik agertu Lore jokoetan. Bada bat 1858-koa Martin Guilbeau-rena, Zumalakarregi-ren oroitzapenetan egina, gazteak deituz gerlara, Napartarrak bereziki, Karlos goraipatuz aldarrikatzen diolarik

Begira ezak hir'omen handia
Sutan emanez sutan espainol hazia.

1874-ean, karlistada garaian MAE «Bizkaitarra»-k igortzen du Sarara kantu luze bat hemeretzi bertsukoa. «Jaungoikua ta erria» deitzen da. Kantu bortitza liberalen kontrakoa:

Ea, bada, mutilak jaki gogorturik,
Fusilak, baionetak artu berbetarik,
Jaungoikua ta Maria doguz gure aldetik,
Europa kontra izanik ez dogu beldurrik

Denak saltsa berean sartzen ditu, Maroto jenerala Judas idurikoa, Isabelen gerizan baltz infernukuak, agintari jarri den jende itsusia, liberalen artean dauden diabruak, Baltzen gaistotasuna...

Dei egiten dio Karlos VII.ari

Españako koroia buruan jantzita
Don Karlos izango da Espainolen aita,
Esan bada gogotik bildurrari itxita:
Bizi bedi Don Karlos ta Andre Margarita.

Dakidanez urte hartan ez zen saririk eman nahiz epai mahaikoetan asko alde ziren kantu horren saristatzeko. Bainan, omen, ixilik eman zioten Bizkaitarrari saria, gerlak segitzen baitzuen oraindik eta Antonio Abbadiak, karlisten alde izanikan ere, pentsatu zuen hobe zela ixiltasunean gauzak egitea.

Eskuindarrak

Jadanik ikusi dugun bezala «gorrien» kontra sortu dira kantu batzu. Errepublikaren aurka ere aurkituko ditugu bertze batzu. Olerkari nagusia da Gratien Adema «Zaldubi». 1874-ean aurkezten du «Betiri-Sanx» deritzan kantua. Betiri Sanx ezagutua da aspaldian gosetearen irudia daukalarik.

Betiri Sanx bai lehen ere
Zer zen ezaguturik gare,
Zer nahi miseria eta dolore,
Denboraz hain pobre
Orai zer podore!
Jainkorik ez dutenen enperadore,
Beti gaixtaginen fagore,
Bandera nahi den kolore
Oraiko mende gisan bere du ohore.

Horra beraz nor den Betiri Sanx, argi eta garbi errana. Gehiago dena,

Betiri Sanx dago oihuka
Biba, biba Errepublika!

Hori da Zaldubi-rentzat bekatu mortala, jakinik Betiri Sanx-zaleek direla libertate osoaren alde, apezen kontrakoak eta haiekin deabruak irri goxoak egiten dituela.

Betiri Sanxen soldaduak
Nun nahi dire nausituak,
Framazon, eskuaraz Harginbeltz deituak,
Heien sekretua,
Zin eta patua,
Lurpeta ilunbetan daude sartuak,
Jainkorik ez nahiz munduak,
Hek ditu gidari hartuak:
Ez dik gaizki irri egiten debruak.

Nor dira errepublikazaleak? Harginbeltzak lehenik eta gero –aski da *Euskalduna* astekaria irakurtzea– protestantak eta juduak, hori bereziki mendearen azken hamabortz urteetan.

Bi urteren buruan Piarres Uxaleguy, Senpereko ikazkinak –izen-orde honen gibelean dago Gratien Adema Zaldubi– aurkezten du «Biba Errepublika» deitutako kantua. (1876)

Dugun errepika
Bib'Errepublika! (bi aldiz)

Bainan errepika ironiaz betea da ikusirik zer dioten bertsuek, lehenak adibidez:

Errepublika zer den ez dakienari
Huna, hots, nik egia: denek nausi nahi.

Segitzen du errepublika jorratuz:

Lehengo denboretan Errege batto zen:
Orai denak errege, hori da hori zuzen.

Hemeretzi bertsutan, denak gatz eta biper, emaiten die Errepublikari eta Errepublikazaleei sekulako zafraldia. Debaldetan, zeren emeki emeki errepublikazaleek irabaziko baitute Euskal Herrian eta, azkenean, Elizak ere onartuko baitu Errepublika, Leon XIII.a deritzan aita sainduak galdeginik.

Frantses iraultzaren ehungarren urte-muga hurbiltzen ari da eta nabari da ospatua izanen dela. 1886-an, hiru urte lehenago, Piarres Ibarrart-ek aurkezten du Urnietan «Betiri Itsasukoaren balentria» deritzan kantua. Iraultza denboran, Frantzia Europaren kontra gerlan zagolarik, diruaren biltzeko hartu zituzten elizetan ziren urre eta zilarrezko gauzak.

Gobernuak manaturik Satanen gizon batzu,
Hainitz elizetan ziren hango gauzez jabetu,
Urre, zilar eta kobre, zenbat gauza sakratu
Dirutegiko Etxera zituzten karraiatu!

Satanen gizonak, beraz. Segitzen du Ibarrart-ek kondatuz nola Betiri-k, Itsasuko elizamutilak, gorde zituen ontzi eta kurutze sakratuak. Ez zuen sekulan aitortu non gordeak zituen nahiz su-garretan errerik oinak. Hori izan zen Betiri-ren balentria, Itsasun kondatzen zena. Ibarrart-en arabera, bakea etorri zelarik Betirik agertu zituen ontziak Bazko egun batean (pizte egun sinbolikoa) eta dudarik gabe jarria dago martiren lerroan.

Betiri gan zen zerurat, beti prestu izanik
Martiren lerroan dela ez daukagu dudarik.

Bertze iraultza denborako gertakari bat gaitzat emana izanen da Donibane Garaziko Lore jokoetan, 1894-ean. Gai hori Anton Abbadiak asmatua da eta kantu guzien gaia izanen da. Labur bilduz, Madalena Larralde, Sarako neskatxa bat, hamabortz urtekoa, joan zen Berara komuniatzeko ez baitzen orduan apezik, giristino leial segitu nahiz; Beratik zetorrenean arrastatu zuten soldadoek eta aitortu zuen neskatxak zertako joana zen Berara. Proposatu zioten ez holakorik aitortzea, baina egon zen berme ez nahiz gezurrik erran. Ereman zuten Donibane Lohizunera kondenatu eta hil zuten «Salve Regina» kantatzen zuela. Hona beraz, XVIII. mendeko Saratar birjina eta martira, Jeanne d'Arc idurikoa, nahiz auzitegiko paperrek dioten 35 urteko emaztea zela.

Irabazleak izan ziren «Baigurako bi artzain», Diharassarry Ortzaizeko erretora eta Daguerre Irisarriko erretora.

Duela ehun bat urte, goibel zagon Frantzia,
Herraustera zaramaten jende kristau guzia,
Euskal Herrian arrotzak ari ziren gogotik,
Bainan Eskualduna tieso... hemen ikus frogatik.

Beratik eta Sarara Madalena Larralde,
Beltxareneko alaba heldu da etxe alde
Lizuniako errekan jadanik da sartua
Uso xuri, uso gazte, doi doia lumatua.

Kantu egileen artean ditugu oso ezagutuak ziren Joanes Oxalde, Jean Erramouspe Bankarra, Manex Etchamendi Ezterenzubikoa, Haranboure Ziburuko xantrea, Xetre Hazpandarra.

Bertze urtean, Bera hautatu du, hain zuzen, Lore jokoentzat Anton Abbadiak, eta gai bera eskaintzen du. Beran kantu asko aurkeztu ziren; egileen artean Mariana Hargain Kanboar bertsularisa ezagutua Iparraldean, Piarres Ibarrart, Pedro Mari Otaño eta izen gabeko hainitz, gehienak Hegoaldekoak, kantuetan bat berrogeita hamar bertsutakoa. Gehienetan erraiten da Euskalduna fededuna dela. Hona zer dion adibidez Piarres Ibarrart-ek:

Gure arbaso Eskualdun hetaz ez egon oroitu gabe,
Beti fedean hazkar egonik zeruko lorian daude.
Izan gaitezen hek bezalako odol beretik baikare.
Etsai gezurti enganakorrak uzten baitugu debalde
Zerurat gare airatuko nola Madalen Larralde.

(1895)

Ez zitzaiona aski Anton Abbadia-ri? Zerk bultzatu zuen gai beraren emaitea 1896-an Mauleko Lore jokoetan? Hirugarren aldikotz! Ez ote da 85 urteko gizon zahar eta eskuindar baten tema eta burkoitasuna? Ez dakigu.

Maulen aurkeztu ziren Felipe Arrese-Beitia, Frantzisko Lopez Alen eta irabazlea Laurent Diharassarry Ortzaizeko erretora, bi urte lehenago bezala. Egia da, Saratarra izanez, Diharassarry-k bertzeek baino gehiago bazazkiela, toki izenak, Madalena Larralde-ren etxearen izena eta bertze.

Halere ikus daiteke zer zen Anton Abbadia-ren ideologia, osoki eskuindarra, frantses iraultzaren kontra nahi zituela jendeak jarri, hain zuzen garai berezi horretan Iparraldeko jendea uzkaltzen ari zela Errepublikaren alde.

Euskal Herriaren kontzientziaren sortzea

Euskal Herriaren historiaz arduratuko da bereziki Jean Martin Hiribarren Beraskoitzeko erretora, idazle nasaia. Hunkitzen dituen gaiak dira:

* «891. *Garazirat ekartzen diote berri Abarkari Moroak Iruñeko hegian direla».* (1858)
* «1643. *Muñosek Baiona Españari saltzen»* (1858)
* «1407. *Heren sugea»* (1859)

Beltzuntzeren balentriak Alexander Meabe-k azaltzen ditu «Erromanoak Euskaldunen guduan» deritzan kantuan (1858), gero doalarik Pelaio-ren gana, bukatzeko Eugenia de Montijo-rekin.

Jose Ignacio Arana-k 1877-an Donapaleun eskaintzen du: «1212 Gurutzearen garaitzapena Euskaldunakin Navas-en». Guduka ospetsua erlisionearentzat gurutzea dela garaile Navas-en, idekitzen baitute giristinoek, Napartarrak barne, Andaluziako bidea. Azken bertsuan lotzen ditu gurutzea, Ama Birjina eta Euskal Herria.

Ilerria bat da ilkintzekin
Navas deritzan tokiya,
Berreun mila berberiskoak
An utzi zuten biziya,
Gizon-odolez ujoltzen zala
Guadalaviarko ibaiya,
Gloria bada gurutzeari,
Birjin Ama gloriya,
Ta izarrez gora jaso dezala
Mundubak Euskal-erriya.

Hain zuzen 1879-an euskal Lore-jokuak Hegoaldera pasatu zirelarik Ramon Artola-k aurkezten du Elizondo-n «Altabizkarko kantua». Bere historia dauka kantu honek. 1835-ean, Garay de Monglave Parisen bizi zen Baiones batek sortu zuen frantsesez Altabizkarko kantua eta Ezpeletako Louis Duhalde batek euskaratu zion. Presentatu zuten kantua erranez paper zaharretarik zetorrela eta erdi arokoa zela, «La chanson de Roland», orduan arrakasta haundiko kantuaren parekoa zela eta, beraz euskaldunek ere bazutela beren erdi aroko kantua. Berrogeita hamar bat urteren buruan –1883-an hain zuzen–, Webster-ek salatu zuen faltsukeria. Halere Artola-k, Garay de Monglave-n ildotik joanez, idatzi zuen olerkia, bereziki atxikiz hain adierazgarri ziren Karolingiarren zenbakiak:

– Zenbat dira aurra: kontaitzik ongi.
– Dira bat, bi, iru, lau, bost,
Sei, zazpi, zortzi, bederatzi,
Amar, amaika, amabi,
Amairu, amalau, amabost, amasei,
Amazazpi, emezortzi,
Emeretzi, ogei.

Ogei eta ogei mila dira bidean onera...

Eta gero Karlomanen tropak ihesari emanak Altabizkarko guduka galdurik kondatzen ditu berriz ere haurrak.

– Zenbat dira aurra? Kontaitzik ongi,
– Dira ogei, emeretzi,

Emezortzi, amazazpi
Amasei, amabost
Amalau, amairu,
Amabi, amaika,
Amar, bederatzi,
Zortzi, zazpi, sei, bost,
Lau, iru, bi, bat.

Bat ere ez da ageri, bakarrik gelditu gera...

Zenbakien zerrendek, lehena gero eta haundiagoa, bertzea aldiz gero eta ttipiagoa, berotzen zituzketen euskaldunen gogo-bihotzak erakutsiz norbait zirela.

Olerkiaren bukaerak ongi erakusten zuen gudukaren garrantzia, errealismo hotz batez baliatuz:

Gabaz, arrano sailak dirade bilduko,
Eta gorputzak jaten dira ibilduko;
Mami puskak bistatik dirade galduko,
Bainan ezurrak beti dira azalduko.

Victor Hugo-k holako zerbait idatzi zuen neurtitz ezin ahantzizko batean:

«Et les os des héros blanchissent dans la plaine».

Bi urteren buruan Xuberotar batek gai bera azaltzen du, zenbakien zerrenda hartuz, bainan bururatzen du Victor Hugo-k bezala:

Bena hezur xuritiak
Betikotz hor baratuko,
Nor beren etxian nausi
Utz dadin erakasteko.

(1881)

1879 da Lore jokoentzat azpimarratu behar den urtea. Elizondo-n ospatzen dira eta geroztik aldizkatzen dira Hegoalde eta Iparraldearen artean. Bigarren Karlistada bukatua da, foruak ezeztatuak dira, Euskal Herria, gerla galduaren ondotik, berpizten ari da.

Nehork ez dezake uka bazakitela Euskaldunek nor ziren. Arnaud Haramboure, Ziburuko xantreak kantatzen ditu Euskaldunen laudorioak errepikan diolarik:

Kanta detzagun, kanta detzagun,
Gure laudorio onak,
Bozak juntatuz erran dezagun
Biba, biba Eskaldunak.

(1858)

Urte berean –1858.an– nahiz lotzen dituen Euskaldunak Napoleon-ekin, Indianotegi deitutakoak hauxe derasa bere lehen bertsuan

Beti fier, leal eta kortes
Eskualduna kantabre da sortzez,
Izena du xoilki kanbiatu,
Bainan ezta arraza mendratu.

Orduko ideiak dira: populu berezia, arraza berezia, hizkuntza berezia. Halere berezitasun honen lekuko dira pilota, dantzak, irrintzinak, kantuak, eta Martin Arrupe-Harlux-en kantuan ez da agertzen bertzerik. (1859)

1871-an, Saran, izen gabeko batek jadanik aipatu ditudanak errepikatzen ditu, ahantziz hizkuntza:

Holaxe bizi da
Urus eskalduna,
Mendian trankil trankila,
Zer dohako politika?
Landak, etxea, Jainkoa,
Hautan du bere gozoa.

Eskaldun arraza,
Biba, biba, biba.
Arrazetan ederrena,
Arrazetan hoberena,
Arrazetan garbiena,
Biba, biba, biba!

Ederrena, hoberena, garbiena, bilduak dira izen-ondo horietan XIX. mendeko ideiak, Gobineau-ren ildotik doatzinak.

Arbola da euskaldunaren ikurra. Jean Baptiste Elissamburu-k ametsetan dakusa

«Arbola bat harrokan ederki jarria».

Arroka hortan, erroak barnaki sartuak ditu arbolak. Sendoa da, azkarra, iraupen luzekoa, kasik betierekoa.

Zer haiz bada arbola? orai mintza hadi,
Harrokatik begira hagoena guri.
– Ni nauk Eskualdun, ni nauk Eskualdun, bai aspaldikoa
Egundaino haizkorak ezin hautsizkoa

Ikusi ditu pasatzen Erromanoak, Karloman, Errolan eta bertze. Ez da sekulan ihartu; alegera daitezela Euskaldunak.

Eskaldunak geroztik gaiten alegera!
Kanta berria dugun denek kanta gora,
Biba Eskaldun, biba Eskaldun arraza hazkarra!
Biba mendigainean Eskaldun arbola.

Ez da dudarik Gernikako arbola kantuaren eragina sendi daitekela. 1867-an gaude.

Yurretako Lore jokoetan, 1891-an, izen gabeko batek egiten dio otoitz bat «Aritz gureari» eta bukatzen du holaxet:

Euskal erriko seme ederrak
Zoazte gaur Gernikara
Zuben arbola antxen dagota
Eta belauniko para;
Zinaturikan bere aurrian
Esan zazute, ai ama!
Zain maitietan muin ematera
Gatoz denok zure gana.

Euskararen kontzientzia

Euskaldunen laudorioak, arbolaren sinboloa, agertu dira erakutsi dugun bezala 1879 baino lehen. Orduz gero gai berri bat azaldua izanen da: euskararena. Lehen aldikotz Elizondon, 1879-an Felipe Arrese Beitiak irabazten du saria «Ama euskerari azken agurrak» deritzan kantuarekin.

Euskara hiltzen ari da, hau da olerkariak aldarrikatzen duen orduko oihua.

Neure biotzeko Amatxo zarra
Antxinako ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
Azken agurra emotera;
Ainbeste gerra goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu galduta
Amatxo, zuaz iltera.

Azken agurrak eta auhenak, foruak desagertuak eta euskara desagertzen ari. Erakusten du Gernikako arbolaren pean etzanik. Bi bertsutan sartzen ditu euskara erabiltzen duten probintziak, denak bilduz:

Il da Euskera, il da Euskera!
Betiko itxi dauz begiak!
Negar Arabak! negar Gipuzkoak!
Negar egin bai Bizkaiak!
Negar arkaitzak! negar mendiak!
Agortu arte iturriak,
Ainbeste geixo, ainbeste gatxen
Osasun emongarriak.

Negar Naparrak, geure anaiak,
Ta euskaldun Frantziakuak!

Euskal Herri osoa, jende, mendi, zelai, iturri, denek nigar egin dezatela. Oihu samina jendeen ernarazteko, aro berri baten eta hizkuntzaren kontzientziaren sortzeko.

Hizkuntzaren kontzientzia! Felipe Arrese Beitiak segituko du bere predikua 1880-ean, Mauleko Lore jokoetan «Bizi da ama euskera» olerkiarekin, galdegiten duelarik denek bat izan diten.

Negar dabe egin Bizkaiak eta
Araba ta Gipuzkoak,
Negar dabe egin Naparrak eta
Euskaldun Frantziakuak,
Orain arte uts egitia
Daukazuez parkaturik
Baldin bazare aurrera izaten
Anaiok alkar artuak.

Fedea dauka euskararen iraupenean oihukatzen duelarik:

Etsai gaistuak gerra min asko
Ta zauri egin deutsue,
Baina oraindik Ama bizkorrik
Ikusi behar zaitue.

Gai bera dauka Antonio Arzak-ek 1881-ean Irun-en «Ilten bazaigu ama Euskera euskaldun ilak gera» olerkiarekin. Hizkuntza osoki lotua da euskaldungoarekin. Hizkuntza da hatsa, arnasa, bizia. Euskararik gabe ez da euskaldunik. Hauxe da mezua.

Euskal Erriko semeak, esna,
Altxa gaitean gaur bertan,
Ara aurtxoak guri begira
Seaskatxo otz-otzetan!
Ama non degu, Ama euskera?
Ara an txokoan, penetan
Iltzen bazaigu ilak gera ta
Ilak aurrak seasketan.

Maulen, 1890-ean, Felipe Casal-ek saria irabazten du «Gure euskara maita dezagun» olerkiarekin.

Euskararen heriotzak sortzen zituen nigarrak xukatuak dira. Bertze izpiritu bat sortua da. Euskarari zor diogun atxikimendua azaltzen da orain.

Maita dezagun gure izkuntza
Euskaldunak geradenak,
Maita dezagun, anai maitiak,
Biyotz sendua degunak,
Aurrera bada, galdu ez dedin
Itzegin dezagun danak:
Beso zabalik artuko gaitu
Bere biyotzera amak.

Gauza bera aldarrikatuko du iparraldeko Piarres Ibarrart-ek –kontura gaiten orai artio hegoaldekoek bakarrik aipatzen zutela euskara– Yurretara igortzen duen olerkian 1891-an:

Euskaldun haur maiteak, zaituztet otoizten,
Maite izan zazue Euskaraz mintzatzen
Bai eta fedearen hazkar atxikitzen,
Arbasoen iduri denak izan gaiten.

Oxalde-k, Ibarrart-ek bezala bilduko ditu euskararentzat erabiltzen ziren orduko ideiak apologistenak: Tubal-en ganik heldu zela, Iberiako lehen hizkuntza zela, eta holako...

Zazpiak bat

Euskararekin batean edo euskararen ondoan agertzen da bigarren gai bat, Herriaren batasuna. XVIII. mendean «Irurac bat» lema zabaldua zen hiru probintzietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bilduz. XIX. mendeak sortuko du «Laurak bat» lema berria Nafarroa gehituz bertze hiru probintziei, 1866-67 urteetan. Lau probintzien arteko lokarriak azkartzen dira, bainan 1868-ko iraultzak eta bigarren karlistadak (1872-1876) zokoratzen dute hasia zen mugimendua. Berriz hasiko da bigarren karlistadaren ondotik, lekuko dela Elizondoko Lore jokoetan Jose Maria Iparragirre-ren kantua, «Nafarroako alkarkideri»

Zorioneko batasunean
Nafarrak gure anaiak,
Bizi dirade lege onean
Gaur gizon guziz ernaiak,

Gure gatik on, esango badu
Etorkizunak, kondairak,
Laurak bat beti! maite alkartu
Izan Euskaldun leialak.

(1879)

Urte berean Felipe Arrese Beitiak biltzen zituen Hegoaldeko lau probintziak eta «euskaldun Frantziakuak» hil zorian zagon euskararen inguruan. «Zazpiak bat» lema ez da oraindik sortua.

Elizondo-n beti izen gabeko batek igortzen du olerki akrostiko bat hiru zortzikotan «Euskaldunen gauzik maitena», neurtitz bakoitza hasten dela tituluaren letra batekin. Hauxe dio bigarren bertsuak:

Noraino bada bear du igo
Euskalerriko jendeak?
Nik esango det atsegin andiz
Gure anai txit maiteak!
Adur eder ta Ebero ibaien
Ur bitarteko semeak,
Zerurontz nola suba bear du
Igo, ausardiz beteak.

Hemen aipatzen den eremua ez da «Laurak bat» deritzana bainan osoki Adur eta Ebero ibaien artekoa.

1881-ean Irunen Klaudio Otaegi-k galdeginen du Napar-euskaldunek bat egin dezaten eskaintzen duen olerkian: «Elkar gaitezen denok Napar-Euskaldunok», azken bertsuan aipatuz ere Lapurdi eta Zuberoa, euskara derabilatelakotz.

1883-an Markiñako Lore jokoetan Martin Hazpandarrak aurkezten du kantu bat «Eskuara eta Eskual Herria maita» deritzana. Bigarren eta laugarren bertsuetan biltzen ditu Euskal Herriko probintziak, ahantziz Araba Hegoaldeko probintzietan, sei zenbakia errepikatuz.

II. Nabarrak, Gipuzkoak, Bizkaiak heiekin
Hirur populu eder beti dute egin.
Hirur kondatzen ere gare elgarrekin,
Lapurdi, Zuberoa, Baxenabarrekin,
Zuen idurikoak, bertute berekin,
Seiak goazen aitzina gure lenguaiekin.

Hirugarren bertsuan dio Arabarentzat:

Alaba galdu dugu arreba maitena,
Oro ez bada ere, segur gehiena.

Lotzen ditu beraz euskara eta euskara mintzatzen den eremua.

Lehen aldikotz euskal Lore jokoetan agertzen da «Zazpiak bat» lema, 1891-an, Iurretan. Izen gabeko olerkari batek egina, olerki akrostikoa, «Ama euskarari (Akrostikoa) «Zazpiak beti bat» tituluarekin.

Zuben anaiak izango gera bizi artian,
Adierazten dizuet gogoz biyotzetikan,
Zazpiak bada lotsaz ez gaiten geldi atzian,

Pozik alegin egin dezagun aman gatikan,
Izan liteke negar eginaz guregatikan,
Arkitutzia buru makurka baztar batian,
Korri mutilak jarri gaitian danen gatikan
Barkaziyua eskatutzeko bere aurrian.
Euskaldun danak ama euskara maita dezagun,
Ta biyotzetik jaungoikoari beti eskatu.
Idukitzeko bere onduan gau eta egun
Bere barrunen gaitzik beinere ez dedin sartu,
Ama betiko izango gara zurekin lagun
Ta guregatik irudipenik ez inoiz artu.

Hamalaurduna edo sonetoa da olerkia (a-a-a-a/a-a-a-a/b-c-b/c-b-c), neurtitzak hamabortz silabakoak direlarik (5+5+5) berriak, ene ustez, euskal prosodian.

Igurikatu behar dugu beraz XIX. mendeko azken hamarkada Zazpiak bat lemaren irakurtzeko. Bi urteren buruan 1893-an, Azpeitian, berriz irakur daiteke. Felipe Casal-ekin «Ama euskara eta bere umiak» deritzan olerkian, amaren eta umeen arteko elkarrizketa batean. Hona amak zer dion seigarren bertsuan.

Elkartasun onean
Zazpi probintziyak
Urra bear ditugu
Oien txarkeriyak.

Urte hartan aurkezten du Gratien Adema Zaldubi-k bere «Gauden eskualdun» poema famatua, bereziki errepika eta lehen bertsua.

Errepika
Zazpi Eskual Herriek bat egin dezagun,
Guziak beti, beti, gauden gu Eskualdun.

I. Agur eta ohore Eskual Herriari,
Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari
Bizkai, Nabar, Gipuzkoa eta Alabari
Zazpiak bat besarka lot beitez elgarri.

Dena errana da, zazpi probintziak izendatuak dira erakutsiz Euskal Herri osoaren batasuna, laudatuz errepikan euskaldungoa zazpi Eskual Herrietan.

1894-ean, Donibane Lohizunen egiten diote omenaldi bat Anton Abbadia-ri. Urte hartan maiz errepikatua izanen da «Zazpiak bat» lema, Anton Abbadia-k berak ere egin duen mintzaldia bururatzean oihukatzen du Zazpiak bat.

Eskaintzen diren kantuetan nabari da.

«Bi eskualdun» izen ordekotzat harturik hona «Eskualdunak» deitzen den kantua. Azken bi bertsuek hau derasate:

Espainian Nabar, Bizkai, Alaba, Gipuzko,
Frantzian Baxenabar, Lapurdi, Zubero,
Zazpi herri hoietan Eskualduna bego,
Ez dezake parerik iguzkiak bero.

Biba beraz goraki, biba zazpiak bat!

Iduri dute kasik zeruko txoko bat.
Zazpietako seme, Eskualdunak oro
Gauden elgar maitatuz orai eta gero.

Piarres Ibarrart-ek presentatzen du «Eskuara, eskualdunak eta heien loriak» deitutako kantua, jadanik aurkeztu zuena Iurretan, bainan aldaketa askorekin.

Bada bertsu bat Iurretako kantuan ez zagoena eta Donibane Lohizunekoan agertzen dena. Horrek erakusten digu nola aldatzen ari den giroa.

Mendien bi aldetan, zazpi probintzia,
Zazpiak bat zirela ez da ahantzia...
Zer bihotz min anaien hola bereixtia
Eta librotasuna ondikoz galtzia.

Oxalde-ren kantuan aurki daiteke bortzgarren bertsuan zazpi probintzien aipua:

Aipu emaiten diot Eskual Herriari,
Baxe-Nabarren hasiz Xubero gainari
Lapurdi, Probentzia eta Nafarroari
Gipuzkoa, Alaba, Bizkai ederrari.

Nahiz abertzale hitza Arana Goiri-k sortuko duen geroxago, nabari da 90-ko hamarkadan argi eta garbi mintzatzen dela zazpi Euskal Herrien batasunaz eta, beraz, aurre-abertzaletasun bat sortzen ari dela.

«Jaungoikoa eta lagi zarra» lema Arana anaiek sortzen dutelarik, biltzen dituzte Lore jokoetan aztertu ditugun ideologiak:

– euskaldun fededun
– Herria eta baserritar giroa
– Euskara eta zazpi probintzien elkartzea

horiek guziak erromantismoaren bigarren garaian, XIX. mendeko azken hamarkadan jalgitzen baita uhain erromantiko bat, 1897-an hain zuzen, Edmond Rostand-ek azaltzen duelarik Pariseko antzoki batean «Cyrano de Bergerac» antzerkia, frantses nazionalismaren eta esperantzarik gabeko amodioaren lekuko.